



## Kurtso hasiera

Guraso agurgarriok,

Ongi etorri *Quick Minds*-era!

*Quick Minds* Lehen Hezkuntzako sei urteetarako sei nibeletako ingeleseko kurtsoa da. Haur Hezkuntzan ikasitako ingelesari jarraipena ematen dio, eta Espainian dauden Lehen Hezkuntzako ikastoletako ingeleseko hizkuntzaren irakaskuntzarako kurrikulumari jarraituz garatu da.

Ikasturte honetan, zuen seme-alabak *Quick Minds* 6-rekin ikasiko du ingelesa. *Quick Minds* 6, ikasleak Phoebe, Alex eta Patrick-ekin, *The Time Travellers*-ekin, (denboran zehar bidaiatzen duten bidaiariak), aurkitzen diren bazkari batekin hasten da. Beraiekin emozioz betetako abentura bat biziko dute, protagonistek denboran eta espazioan zehar toki desberdinetara biadaiatzen duten bitartean.

*The Time Travellers*-en **istorioekin** ongi pasatzen duten heinean, umeek **trebetasun** desberdinak, **hiztegi** eta **gramatika** erabilgarria ikasiko dute, eta baita kantu **dibertigarriak** ere.

Zuen seme-alabaren ingelesa etxetik ikasteko esperientzian parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. *Quick Minds*-ek online dituen jarduera interaktiboekin egin dezakezue [www.quickmindsapps.es](http://www.quickmindsapps.es) orrialdea bisitatuz. Bertan, familian jolasteko **hiztegi eta gramatikako jolas interaktibo dibertigarriak** daude. **Abesti** eta **istorioak** online ere eskuragarri daude. Horrela, edozein unetan abestiak abestu eta istorioak ikusi eta entzun ditzakezue.

Espero dugu *Quick Minds*-en ingelesarekin zuen seme-alabak bezain ongi pasatzea!



## Welcome Back to school gaia

Guraso agurgarriok,

Ikastarorako sarrera unitatean (*Welcome Unit*), *Back to school*, zuen seme-alabak **zenbaki ordinalak** ikasiko ditu, **orainaldi simplea eta orainaldi jarraia** paraktikatuko ditu eta **going to** errepatatuko du. Ikasitakoa online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** praktikatu dezake.

Eska iezaiozue *Time Travellers* **abestia** abesteko eta guztiok batera **karaoke** bertsioa abestu.

Ikasgai honetako **istorioan**, *Back in time again*, zuen seme-alabak *Time Travellers*-en lehenengo abentura nola hasten den irakurriko du, natur zientzien klase bateko leherketak denboraren tunela zabalduko duenean, hain zuzen. Galdetu zuen seme-alabari pertsonaien inguruan: Phoebe, Patrick eta Alex. Zer gertatu zen natur-zientzien eskolan?

Ongi pasatzea espero dugu!



## 1 gaia Jet packs for hire

Guraso agurgarriok,

1. gaian, *Jet packs for hire*, zuen seme-alabak **mendiarekin** erlazionaturiko hiztegia ikasi eta praktikatuko du eta **lokailuen** eta **could eta couldn't**-en erabilera ikasiko du. Ikasgaian ikasitakoa online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** berrikus dezake.

Eska iezaiozue zuen seme-alabari mendiko **abestia** abesteko, edo guztiok batera **karaoke** bertsioa abestu.

Irakasgai honetan zuen seme-alabak *A problem for Patrick* **istorioa** irakurriko du, non Alex, Phoebe eta Patrickek beraien *jet packs*-ak hegan jartzen ikasiko duten. Galdetu ea zergatik zegoen arduratuta Phoebe.

Bukatzeko, **Act out** irakasgaian, zuen seme-alabak esaldi baliagarriak ikasiko ditu, eta eskolako ikasle berri batekin elkarrizketa bat antzetzuz, bere hitz-jarioa hobetuko du. Galdetu zuen seme-alabari zer gogoratzen duen elkarrizketatik. Zenbat balio du *jet pack* baten alokairuak?

Ongi pasatzea espero dugu!



## 2 gaia The Jurassic Age

Guraso agurgarriok,

2. ikasgaian, *The Jurassic Age*, zuen seme-alabak **Jurasikoari** buruzko hiztegia ikasiko du, eta konparatiboak eta superlatiboak errepasatuko ditu. Horrez gain, **how much** eta **how many**-ren erabilera ikasiko du. Ez ahaztu zuen seme-alaba online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboak** erabiltzera animatzea.

Eskatu zuen seme-alabari dinosauroari buruz hitz egiten duen irakasgaiko **abestia** abesteko eta **karaoke** bertsioarekin batera abestu.

Irakasgai honetako *Time Travellers*-en **istorioan**, Phoebe, Alex eta Patrick dinosauroekin aurkituko dira. Galdetu zuen seme-alabari ea non zeuden hiru lagunak. Zer ikusi zuten lehenengo? Zergatik egiten zuten korrika?

Bukatzeko, zuen seme-alabak **fosilen** inguruko gauzak ikasiko ditu. Galde iezaiozue ea zer den fosil bat eta berak egin duena erakusteko.

Ongi pasatzea espero dugu!



## 3 gaia This is Houston

Guraso agurgarriok,

3. ikasgaian, *This is Houston*, zuen seme-alabak **espazioko** hiztegia ikasiko du eta **aditzondoan** eta *can/may*-ren erabilera praktikatuko du baimena eskatzeko. **Hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboak** erabili irakasgai honetako lezioak berrikusteko.

Galdetu zuen seme-alabari ea nagusitan zer izan nahi duen. Animatu irakasgaiko **abestia** abestera, edo gehiago dibertitzeko, guztiok batera abestu **karaoke** bertsioa!

Galdetu zuen seme-alabari Patrick, Phoebe eta Alex nora doazen irakasgai honetako abenturan. Zergatik geratu zen lo mundu guztia? Nori esaten zuen Phoebek laguntzeko? Zelan jakin zuen Alexek zer egin behar zuen?

Azkenik, **Act out** irakasgaian, zuen seme-alabak estralurtar bat elkarriketatuz bere hitz-jarioa hobetuko du. Etxean, estralurtarraren papera egin dezakezue eta zuen elkarriketa antzetz.

Unitatean ongi pasatzea espero dugu!



## 4 gaia Museum of the future

Guraso agurgarriok,

4. gaian, *Museum of the future*, zuen seme-alabak **lanbideekin** erlazonaturiko hiztegia ikasiko du eta baita **must, mustn't eta had to**-ren erabilera ere. Bisitatu web orrialdea online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** praktikatzeke.

Irakasgai honetako **abestia**, pertsonak beraien lanpostuetan egin behar dutenari buruzkoa, entzun. Guztiok batera abestu **karaoke** bertsioarekin eta dantzatua!

Irakasgai honetako **istorioan**, *The trouble with Orangehead XR-97*, Alex, Patrick eta Phoebe museo batean daude. Galdetu zuen seme-alabari ea zer gogoratzen duen **istorioaren** inguruan. Zein seinal zegoen atean? Zer gertatu zitzaion robotari?

Azkenik, zuen seme-alabak **inpresionismoaren** eta bere artista garrantzitsuenen inguruan ikasiko du. Eska iezaiozue egin duen margolan inpresionista erakusteko eta deskribatzeko.

Unitate honekin ongi pasatzea espero dugu!



## 5 gaia Space restaurant

Guraso agurgarriok,

5. gaian, *Space restaurant*, zuen seme-alabak **jatetxei** buruzko hiztegia ikasiko du, eta horrez gain, **will eta won't**-en erabilera **eskaintza eta promesetan**. Ez ahaztu unitatea erreparatzeko online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboak** erabiltzea.

Animatu zuen seme-alaba unitate honetako **abestia** abestera. **Karaoke** bertsoia ere erabil dezakezue!

Galdetu zuen seme-alabari ea zer gertatzen den irakasgai honetako *The birthday meal* **istorioan**. Zer zegoen lehen plater gisa? Zerekin jan zuten? Zer zegoen postrerako?

Azkenik, **Act out** ikasgaian, zuen seme-alabak zerbitzari eta bezero baten arteko elkarrizketa antzetzuz, bere hitz-jarioa hobetuko du. Paperetako edozein egin dezakezue etxean zuen elkarrizketa propioa antzetzeko.

Ongi pasatzea espero dugu!





## 6 gaia Olympic sports

Guraso agurgarriok,

6. gaian, *Olympic sports*, zuen seme-alabak **kirolen** inguruko hiztegia ikasiko du, eta **present perfect** praktikatuko du **ever/never** erabiliz eta **posesiboen** erabilerarekin. Irakasgaia erreparatzeko online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboak** erabil ditzakezue.

Irakasgai honetan, zuen seme-alabak kirol olinpikoen **abestia** ikasiko du. Eska iezaiozue abestia abesteko. Ez ahaztu **karaoke** bertsioa erabiltzen!

Aste honetako **istorioa** *Not the best day* deitzen da. Galdetu zuen seme-alabari ea nora doazen Alex, Phoebe eta Patrick, eta ea zer gertatzen zaien. Zer gertatzen zaio Phoeberri?

Azkenik, zuen seme-alabak **giharren** inguruan ikasiko du. Gorputzeko gihar desberdinak ikasiko ditu eta eguneroko ariketa fisikoen taula bat egingo du. Eska iezaiozue bere eguneroko ariketa fisikoen taula erakusteko.

Unitatean ongi pasatzea espero dugu!





## 7 gaia Disaster!

Guraso agurgarriok,

7. gaian, *Disaster!*, zuen seme-alabak **antzinako hiriei** buruz ikasiko du, eta baita ***past continuous***-en erabilera ere. Horrez gain, **objektu izenordainak** praktikatuko ditu. Online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboak** erabil ditzakezue etxean praktikatzeko.

Ipini eta kantatu unitate honetako **erupzio bolkanikoari** buruzko abestia. Ez ahaztu **karaoke** bertsioa online entzuteaz!

Aste honetako **istorioan**, *A narrow escape*, Patrick, Alex eta Phoebe, Ponpeyan daude. Galdetu zuen seme-alabari ea zer gogoratzen duen istoriotik. Norantz egiten du korrika Phoebek? Zer saiatzen dira esaten umeak Ponpeyako bizilagunei?

Azkenik, **Act out** ikasgaian, zuen seme-alabak bere hitz-jarioa hobetuko du larrialdi bat duen pertsona baten eta larrialdietako zerbitzuko langile baten arteko elkarrizketa telefonikoa antzetzuz. Galdetu ea zer gogoratzen duen elkarrizketatik.

Ongi pasatzea espero dugu!



## 8 gaia In the rainforest

Guraso agurgarriok,

8. gaian, *In the rainforest*, zuen seme-alabak **kanping-eko jardueren** inguruko hiztegia ikasiko du eta **who, which eta wherekin** esaldiak paraktikatuko ditu. Horrez gain, kurtsoan zehar ikasitakoa erreparasatuko du. Ez ahaztu online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** jolastea!

Galdetu zuen seme-alabari ea zer gertatzen zaion aitari unitate honetako **abestian**. Guztiok batera abestu abestia, hiztegia eta gramatika lantzeko.

Azken irakasgai honetan, *Time Travellers*-ak oihan batean daude. Galdetu zuen seme-alabari ea zer egiten duten Alex, Phoebe eta Patrick-ek bertan. Zergaitik bilatzen dute herri bat? Zein opari ematen dio Alexek gizonari? Galdetu zuen seme-alabari ea kurtsoan zehar *Time Travellers*-ak bisitatu dituzten herrialde guztiak gogoratzen dituen.

Azkenik, zuen seme-alabak **oihanei** buruz ikasiko du. Hitz egin berarekin zergatik dauden oihanak arriskuan. Eska iezaiozue oihanei buruz berak egindakoa lana erakusteko.

Ongi pasatzea espero dugu!





## Kurtso amaiera

Guraso agurgarriok,

Ikasturte honetan, zuen seme-alabarekin batera *Quick Minds 6*-eko ingelesa etxetik landuz ongi pasatu izana espero dugu. Eta era berean, online dauden **hiztegi eta gramatikako jolas interaktiboekin** jolastuz, istorioak ikusi eta irakurriz, eta abestiak entzun eta abestuz gozatu izana.

Gogoratu, edozein unetan, gehien gustatu zaizkizuen jolas interaktiboekin jolastu, istorio bizidunak berriro ikusi eta gogokoen dituzuen abestiak berriz abestu ditzakezuela.

Bukatzeko, *The Time Travellers*-ei: Phoebe, Alex eta Patrick-i, zuek agurtzea gustatuko litzaieke eta opor zoriontsuak opa dizkizute!

